

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

ENTOMOLOGIA

Eltxoen aurka edozerk balio du

ELTXOEN HOZKAK, deserosoa izateaz gain hainbat gaixotasun transmititzen ditu, malaria, paludismoa eta dengea besteak beste. Baina eltxo guztiek ez dute hozka egiten; arrautzak jarri behar dituzten emeak dira ugaztunen odoleko proteinen bila joaten direnak.

Emeek hozka egin ondoren, eta xurgatu-tako odola metabolizatzen ari diren bitartean, nitrogenoa askatzen dutela behatu du Arizonako Unibertsitateko ikerlari talde batek; zehatz esanda, *Aedes aegypti* eltxo espeziean aurkitu dute portaera hori.

Aurkikuntzak bide berri bat zabaldu du eltxoen aurkako borrokan. Odolez lepo dauden emeek nitrogenoa askatzea galara-



Aedes aegypti espezieko eltxoa, pertsona baten azalean otordua egiten.

Osasuna

JABIER AGIRRE

Edaten dugunarekin kontuz

GAUR EGUN osasunaren inguruko kezka ugari dauzkagu: txantarra, hezur-masaren galera, garuneko isuria, diabetesa, dementsia, minbizia, loditasuna eta beste hainbat, norberaren sexuaren, adinaren, lanbidearen eta beste faktore batzuen arabera. Harrigarria badirudi ere, osasun arazo horiek lotura dute edaten dugunarekin.

Holandako Unilever Health Institute delakoaren laguntzaz –Unilever etxea da Lipton izeneko tearen jabea–, aditu talde batek gida interesgarria argitaratu du zer edan jakiteko. Eduki kaloriko altua duten edarien kontsumoa murrizteko helburua zuten, ezer gutxi ekartzen baitiote horrelako edariei osasunari, kaltea ez bada.

✓ **Ura.** Edari gustukoenen artean aurreneko postuan dago. Ez kaloriarik, ezta arriskurik ere, mesedea besterik ez. Baina aditu taldea kezkatuta agertu zen ur botilatua-rekin, batez ere zenbait elikagaiz aberastua dagoen botilako urarekin. Zer esango lukete adituek Coca Cola edo Pepsi bezalako enpresa erraldoiek merkaturatu nahi dituzten soda bitaminadun horiei buruz?

✓ **Kaloria likido gozoak.** Batez ere freskagarri eta fruta-edari azukretuetatik hartzen ditugu. 1970etik aurrera ikaragarri ugari dira horrelako edariak, eta arazo ugari egotzi dizkiete adituek: gehienetan kaloria hutsak

izatea, batzuek hortzetako esmaltea hondatzea eta kola-freskagarriak emakumeengan aldakako hezur-masa galerarekin erlazioa izatea.

✓ **Kafea, tea eta kafeina.** Neurritz hartuta ez dira arazo iturria, eta babesle ere izan daitezke –diabetesaz, koloneko minbiziaz eta Parkinson naz babesteko gai direla esan dute–, baina kafeinak zertxobait handitzen du odol-presioa, eta kafe espresak kolesterolo mailak igotzen ditu. Haurdun dauden emakumeek kafearekin kontuz ibiltzea gomendatzen zaie; ez dituzte 300 miligramo baino gehiago hartu behar egunean.

✓ **Alkohola.** “Pixka bat ezer ez baino hobea izan daiteke, baina asko pixka bat baino okerragoa da, zalantzarik gabe”. Infartu eta garuneko tronbosiek epe luzera eragindako heriotza-tasa baxuagoarekin lotu izan dute ikertzailerek kontsumo neurritsua: anoa bat egunean emakumeengan, eta bi gizonezkoengan. Baina alkohol kontsumo altua pronostiko txarreko hainbat minbizirekin, gibekeko zirrosiarekin, hipertentsioarekin eta bestelako gaitz batzuekin lotuta dago.



landareak

JAKOBA ERREKONDO
mandio@zerain.com

Zotzetik txotxa

PIPAN EDO UPELEAN hartzitu eta heldutasunaren atarira iristean bonbilara edo botilara; bonbilatik prat-txin edalontzira eta aho-sabaiaren zurrunbiloan arrastoa utzita eztarrian barrena... Sagardoaren patua. Garai batean bide bakarra ezagutzen zuen sagardoak: sagarrondo amaren zuretik abiatua, zurezko hagaz moildua, zurezko kixkiaz zurezko zarera bildua, zume-zurezko adarrez lotutako zakutan gurtetxea eta gainerakoak zurezkoak zituen gurdian garraiatua, zurezko askan zurezko sumilaz joa, zurezko kantalerak, sareak, azpisunbilak eta oholak dituen dolarearen askan beratua, zurezko palaz patsatua, dolareko zurajeko hori patsola giltza urkatxu eta ardatzek zanpatua, zurezko tinan bildua, zurezko pipa, barrikote, barrika, bukoi edo upelean hartzitua, zur-azalez itxitako bonbiletan ondua edo zurezko txotx edo txorrotatik zurezko pitxarretara eta zurezko edalontzietara eta zuretik ezer ez duen bakoitzaren ondo nork bereko ahoko zulora. Milaka urtetan sagardoaren ohaidegokoa izan dira zurak, zur denak ez badira ere asko: lizarkia, haltzaria, sagarkia, hurritzia, urkikia, zumekia, sahaskia, gaztainkia, gerezikia, harizkia, pagokia, intxaurkia, artekia, sasiakaziakia, amezkia, erkamezkia...

Ardoa eta zuraren arteko ezkontzaren berri oso da zabaldua eta jakina. Ardoa, mahatsarena, kristauek ekarri, zabaldu eta oraindik ere sustatzen ari diren edaria izaki elizaz ezkontzea ulertzekoa da. Sagardoa, ordea, Eliza zergazale eta bizitza-lapurren aldean zaharra da, zaildua eta amoranteek nahiago, non-bait. Bada sagardoa ardoa ez dela dioen gastronomorik, geure ardo zaharrena... Kalitatezko ardoan zurak duen garrantzizko ekarriaz inork badaki ardozale horiek dira; bada, horiek eta sagardoa sagarretik ahorako bidean zur gozotik erabat urrutiratu eta metal hotzarekin ezkondu nahi duten sagardogileek eta enologoek jarri dute sagardoa inoizko maila behekoenean, lurpean. Orain arteko sagardoa ez den edari baten sortzearen lekuko gara azken urte hauetan eta datozenetan izango gara. Jende hori erraz ezagutuko duzu: zuraz gaizki esaka entzungo dituzu. Bere patrika berotzeko sagardogintza berriari "merkatuak eskatzen duena emate" deitzen diote, harropuz asko! Eta mahatsaren ardoa bezala, txarretan ikaragarriena metalak egiten duela badakite, eta onena, ahalaro zintzurreratuko dutena, zurak. Zuretik ezpala... eta sagardoa!

JAKOBA ERREKONDO



Sagardo pitxarrak, haltzakia.

ziz gero, ezin izango lukete odola metabolizatu eta hil egingo lirateke.

Printzipio hori ezarri nahi dute intsektizidetan, nitrogenoa askatzea eragotziko duen molekula garatuz. Molekula hori intsektizida klasikoe-kin nahastuz eta eltxoak elkartzen diren guneetan barreiatuz, haiek akabatzeke bidea zabalduko litzateke. Gainera, eltxo asko dauden lekuetako biztanleei pilulak eman dakizkieke. Hala, eltxoak infektaturik geratuko lirateke hozka egitean. Ikusten denez, asmatu nahi duten sistemak ez du hozkada jasotzea saihesten, baina eltxo horren azken hozkada izango dela ziurta daiteke. |

BOTANIKA

Bere buruaz beste egiten duen palmondoa

MADAGASKARREN palmondo erraldoi mota bat topatu dute, bizitzan behin baino loratzen ez dena eta ondoren bere buruaz beste egiten duena. Bost metroko diametroa eta hogeit metroko altuera izan ditzakeen espezie horri *Tabina spectabilis* deitu diote ikerlariek. Loratzea zuhaitzak 50 urte- tik gora duenean hasten da. Palmondoaren goiko aldean lore bakarra hazten da hasieran; aste batzuk igaro ondoren goiko adarretan ehunka lore txiki daude. Horietako bakoitza polinizatua izan daiteke, eta ondorioz fruta bihurtu; hori gertatu ondoren, palmondoa berehala hiltzen da.

Madagaskarrek, irla izateagatik, munduko beste lekuetan ez dauden espezie asko ditu. Hain zuzen ere, bertako 10.000 landare espezieetatik %90 ez da beste inon topatzen. Besteak beste, 170 palmondo espezie daude uhartean. |



Beste inon aurkitu ezin daitezkeen 170 palmondo espezie daude Madagaskarren.

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Erremintak Soluzioak Zerbitzuak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)
Industrialdia 1, 20186 Lesarri-Oria
Tel. 943 37 18 48
e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA